

## Hizkuntza Modernoetako graduako tituludunaren profila: Ingeles Ikasketak, Hispaniar Ikasketak, Literatura Ikasketak, Hizkuntzalaritza Ikasketak.

Titulazio honek XXI. mendeko hizkuntza eta kulturetako profesionalak prestatzen ditu. Tituludunak prestakuntza osoa jasotzen du lau hizkuntzatan eta hainbat lanbidetan aritzeko gertu eta orientatuta dago.

Ikasleek, gradua amaitzean, hizkuntzetarako Europako Erreferentzi Marko Bateratuan deskribatzen diren hizkuntza gaitasun eta trebetasunak izaten dituzte: C1 eta C2 mailako gaitasunak izaten dituzte Erreferentzia Markoko zenbait arlotan hiru hizkuntzatan: ingelesez, euskaraz eta gaztelaniaz. Gainera, Hizkuntza Modernoetako tituludunak A2-B1 maila ere izango du alemanean, frantsesean, txineran edo arabieran, aukeratzen duen hizkuntzaren arabera.

Tituludunak IKTak hizkuntzen esparruan erabiltzeko maila aurreratua lortzen du eta hizkuntzalaritza ikasketak, itzulpengintza, hizkuntzen kudeaketa, komunikazioa eta kulturen arteko bitartekotza, eta hizkuntzen irakaskuntza arloetan aplikatzeko.

Nazioarteko programa eta graduako kanpoko praktikak egiten dituen ikasleak ikuspegi desberdin eta osagarriak jasotzen ditu, sakondu egiten du graduaren nazioarteko ikuspegian, eta curriculum pertsonala eta akademikoa zabaltzen ditu graduako espezializazio esparruetan.

Hizkuntza Modernoetan aipamen bat edo gehiago aukeratzen badu, ikasleak ingelesez hitz egiten den herrialdeetako kultura eta hizkuntza (Ingeles Ikasketak), ingelesa eta espainiera eta bien mekanismoak (Hizkuntzalaritza Ikasketak), ingeles eta espainiar literatura (Literatura Ikasketak), eta hispaniar munduko hizkuntza eta kultura (Hispaniar Ikasketak) arloko prestakuntzak jasoko ditu.

Ikasketak amaitzean, tituludunek goi maila lortua izango dute hizkuntzaren erabileraren alderdi kontzeptual eta praktikoetan. Titulazio hau amaitzen duten ikasleak (den aipamena dela) hainbat gaitan prestatuta ateratzen dira, hizkuntza, kultura eta beren erabilerako trebetasunei aurre egiteko, eta hainbat testuinguru akademiko eta nazioartekotan funtsezkoak gertatzen dira trebetasun horiek.

Zehatzago esanda, titulu honek aukera ematen dio tituludunari arlo hauetan lan egiteko:

- **Nazioarteko inguruetan:** itzulpengintzan, hizkuntzalaritzako teknikari lanean, multinazionalan.
- **Prestakuntzan:** hizkuntzen arloko irakaskuntzan eta ikerketan.
- **Komunikazioan eta argitalpenetan:** komunikabideetan, argitaletxeetan, hizkuntza aholkularitzan.
- **Teknologia berrietan:** sareko dokumentazioan, liburutegi informatizatuetan, sareko hizkuntza baliabideetan, hizkuntzalaritza konputazionalan, ordenagailu bidezko hizkuntzen irakaskuntzan.
- **Kultur aisian:** kultura teknikari eta kultura animazioan.